



Gangoitienabekoa

etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Gángotin bekúe



43° 10' 58"

2° 35' 56"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Andikoatik Sarriarantz doan bide ondoan eta *Arrierreka* ondoan kokatzen den baserri honen inguruko aipuak, *Gangoitienagoikoa* baserriarekin (**Ikus Gangoitienagoikoa**) gertatzen den moduan, eskasak eta nahasgarriak dira. XX. mende hasieran aurkitutako informazioan *Gangutiena* (1905, BUA, 40) moduan agertzen da baserri hau, *Gangoticoa* (*Gangoitienagoikoari* erreferentzia eginez) eta *Gangutia* baserrietatik bereiztuz. Dena den 1967ko eraikin zentsoa izango da argiena, bertan *Gangutiena becoa* (BUA, CE) aurkitzen dugu metro batzuetara duen *Gangutiena goicoa* baserritik bereiztuta. Auzotarren artean *Gángotin bekúe* da forma erabiliena.

Baserri etxe ederra, atarteko arkuak ondo de-

finitzen duena. Pisu bikoa da, goikoa teiltuaren formari egokitzen dena. Leiho gutxi dituen arren, arkuak da fatxada nagusiari bizitasuna ematen diona. Gainean, leiho luzea du, etxearen ardatza indartuz. Eta honen alde banatan, leiho bana pisu bakoitzean, txikiak goikoak izanik. Isuri biko teiltuak oso hegal zabalak dauzka eta horretarako, beste hainbat baserri-tan legez, egurrezko besoak erantsi behar izan zizkioten. Erabili zuten materiala harlangaitza izan zen hormetarako eta harlandu gorrixka, ostera, kantalak eta bao ertzetarako. XIX. mende hasiera inguruan jasotako etxea izan daiteke.

toponimia

Izen hau eta Ganguti oso antzekoak badira ere esangura desberdina da kasu honetan bekoa baita bigarren osagaia. Gaur egun bekoa erabiltzen baditugu ere, antzina beiti erabiltzen genituen etxe izen eta deiturretan ikus daitekeen bezala.